KALTEA LEPOAN DAGIANAK BIZARRA
Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

# emeki

Gizarte Zerbitzuetako Arloa
Área de Servicios Sociales

Publicación del Área de Igualdad del Ayuntamiento de Getxo
*Getxoko Udaleko Berdintasun Arloko argitalpena*

**Octubre** 2005 Urria - **Nº** 5. Zbk

## EDITORIALA

Mujeres y hombres vivimos juntos en una sociedad en transformación. Las dinámicas de la relación entre unas y otros han ido fraguándose desde los comienzos de la historia, en base a condicionamientos biológicos, climáticos, estrategias de supervivencia, luchas de poder, conflictos de intereses, etc.

Las mujeres han pasado en un relativamente corto lapso de tiempo a operar como motor transformador de la sociedad, reivindicando constantemente el acceso a espacios anteriormente vetados para ellas, el reconocimiento de derechos y deberes, la necesidad de hacer oír sus experiencias. Y, fundamentalmente, la lucha por la igualdad se expresa en la necesidad de un cambio en las relaciones de poder entre hombres y mujeres a todos los niveles y en todos los ámbitos.

Ante las nuevas posiciones de las mujeres en las sociedades modernas, los hombres se ven obligados a reaccionar. Las reacciones son algunas veces de violencia, otras de concesión, a menudo de oposición, devaluación, ridiculización, en ocasiones de acuerdo y aceptación. La negociación es permanente por cuanto el cambio supone para muchos el abandono de su posición, de sus hábitos y costumbres, de su parcela de poder, de su espacio de libertad, de su zona de confort.

Desde el Ayuntamiento de Getxo, a través del Area de Igualdad, nos hemos marcado el trabajo con hombres como una de las prioridades para esta legislatura, en el convencimiento de que sólo su implicación en la lucha por la igualdad nos permitirá avanzar con paso firme hacia un futuro en paridad. Por ello, animamos a los hombres del municipio, de toda edad y condición, a participar en los talleres “Hombres haciendo frente al sexismo”, invitándoles a repensar cómo viven su masculinidad y qué posición toman ante las desigualdades que rigen las relaciones de hombres y mujeres.




*Emakumeak eta gizonak elkarren ondoan, elkarrekin, bizi gara aldatzen ari den sozietate honetan. Batzuen eta besteen arteko harremanen dinamikak historiaren hastapenetatik moldatuz joan dira, biologia, klima, biziraupeneko estrategia, botere borroka, interes auziek eta abarrek baldintzatuta.*

*Emakumeak, denbora tarte nolabait laburrean, sozietatea aldarazteko motore modura aritzera igaro dira, lehenago itxita zituzten eremuetara sartu ahal izatea, eskubideak eta eginbeharrak aitor dakizkien eta beren esperientziak entzunarazi behar dituztela aldarrikatuz. Eta berdintasunaren aldeko borrokaren jomuga, batez ere, gizon eta emakumeen artean, maila eta esparru guztietan, dauden botere harremanak aldatzea da.*

*Gizonezkoak nola edo hala erreakzionatzera behartuta daude emakumeak jendarte modernoetan hartzen ari diren posizio berrien aurrean. Batzutan indarkeriaz erantzuten dute, amore emanez bestetan, aurka eginez, gutxiespenez, barregarri utzi nahirik sarritan, adostasunez eta onespenez inoiz. Etengabe negoziatu beharra dago, aldaketak, askorentzat, beren posizioa, ohitura eta usadioak, beren botere gunea, askatasun eremua, erosotasun esparrua baztertzea esan nahi baitu.*

*Getxoko Udaletik, Berdintasunaren Arloaren bitartez, legealdi honetarako lehentasunen artean gizonekin lan egitea sartu dugu, gizonezkoek berdintasunaren aldeko borrokan inplikatzen badira soilik egin ahalko baitugu aurrera, tinko, berdintasunezko etorkizunerako bidean. Horregatik, udalerriko gizonok, adin eta egoera guztietakook, anima zaitezte Gizonezkoak sexismoari aurre egiten lantegietan parte hartzera; gonbidatuta zaudete zuon maskulinotasuna nola bizi duzuen, eta gizon eta emakumeen harremanak gidatzen dituzten desberdintasunen aurrean zer jarrera hartzen duzuen gogoeta egitera.*

# Emakumeok eta Euskal Literatura

*Va a hacer un año desde que Josune Muñoz y sus compañeras de Skolastika arribaran a las costas getxotarras con una maleta llena de ideas y cientos de propuestas literarias originales que hacer llegar a un público igualmente original: Las alumnas de la entonces recién nacida Escuela de Empoderamiento de Mujeres de Getxo. Tras ofertar un primer nivel del curso "Literatura de Mujeres del Mundo" en el marco de las actividades de la Escuela, el éxito fue tan rotundo que sus promotoras decidieron, no sólo repetir la experiencia, sino ampliar la oferta, incorporando al programa de este año el curso "Emakumeak eta Euskal Literatura" que abrirá su período de matriculación a partir de enero. Conozcamos de la mano de Josune Muñoz los pormenores de esta iniciativa.*



**Nondik sortu zen Emakumeak eta Euskal Literatura lantegiaren ideia?**
Lantegia euskal filologiako nire karrerarekin haserretu nintzelako sortu zen. Gezurra dirudien arren, karrerako urte batean ere, eta laurogeita hamargarren hamarkadaz ari naiz, ez nuen emakume bakar bat ere ikasteko betarik izan, ez eta emakumeen literatura sorkuntzarekin zerikusirik izan zezakeen ezer ere. Eta ez zen halako emakumerik ez zegoelako izango, ez horixe! Nik asko ezagutzen nituen, eta sutan jartzen ninduen nola isilarazten zituzten ikusteak. Nire kabuz ikertzeari ekin nion. Antzinako euskal literatura aztertu nuen, beste eskuliburu, entziklopedia, erreferentzia batzuk bilatu nituen, eta gauza asko aurkitu nuen; horiexek dira, hain zuzen, nire lantegietan azaldu ohi ditudan kontuak.

**Aurreratuko diguzu zerbait?**
Jakina. Adibidez, zein da literaturaz daukagun ideia? Liburuetara baino ez dugu begiratzen, eta ahozkoari merezi duen garrantzia ukatzen zaio. Emakume idazle batengan pentsatzen duzunean, nobelak idazten dituen emakumea datorkizu burura, normalean. Kontzeptu hori oso mugatua da. Lantegi hauetan literatura nobelak baino gehiago dela irakasten dugu, literatura ahozkoa eta idatzia direla. Eta euskal literaturak, zorionez, berez, ahozkoari ohorezko tokia eskaintzen dion arren, literatura horretan emakumeen eskua aurkitzen ikasi behar dugu, emakumeek Euskal Herrian literaturarik egin ez dugula kontatu ziguten hartatik urrunduz. Kultura guztietan badago, zergatik ez da, bada, emakumearen pisua nabarmenago izan den gurea bezalako kultura batean ere egongo?

**Zertan datza lantegia?**
Lantegiaren lehenengo atalean, ahozko euskal literatura guztia gainbegiratzen dugu, emakumeek sortu dituzten materialak aurkitu ahal izateko. Antzinako herri kantuak, amodiozko baladak, dolu kantuak, plazako kantuak, erromerietako kantuak, ipuinak, atsotitzak eta esapideak, iturri agortezina daukagu. Prozesua erraza da. Denok daukagu herriaren erreferentzia bat, gogoratzen dugu emakume hark kantatzen zuen auzoa, edo amamak ipuin zoragarriak zekizkiela... Lantegian familiaren haritik, herriaren haritik tiratzeko gogoa pizten zaigu.

**Eta zer dago hari horren beste aldean?**
Zeudenik ere pentsatuko ez genukeen materialetara hurbiltzeko ezagutza berriak. Literatura maiuskulekin ulertu ahalko dugu. Literatura egitea idaztea baino gehiago dela ulertzera helduko gara, literatura egitea kantatzea, sortzea, dagoenari eutsi eta transmititzea ere badela, eta historian zehar, emakumeak izan direla zeregin horretaz arduratu direnak.

**Nork eman dezake izena?**
Lantegia euskaraz da. Etor daitezen animatu nahi ditut emakume guztiak. Betiko euskalduna, euskaldun berria, bizkaieraz zein gipuzkeraz mintzo dena, alfabetatuta dagoena, alfabetatu gabea... denak, gure abiapuntua ahozko literatura baita eta, horrela, jolasteko, guztion artean gogoratzeko aukera baitaukagu, liburutzar mamitsurik aztertzera sartu barik. Kantuak, ipuinak, atsotitzak berreskuratzen ditugu, etxean erabiltzen ziren esapide haiez mintzo gara..., libururik irakurtzen hasi behar dutenerako lantegian denboratxoa emana dute, eta literatura ezagutzen hasiak dira.

# ALBISTEAK

## INVESTIGACIÓN SOBRE HISTORIA

Durante siglos, la historia oficial -escrita por los hombres- ha sepultado bajo el manto de lo anecdótico, la importante labor que las mujeres hemos desempeñado en el desarrollo político, científico, social y económico de nuestras sociedades. Además del importante papel de madres y cuidadoras, las mujeres hemos investigado, inventado, descubierto, teorizado, liderado,...; sin embargo, apenas encontramos referencias a estas contribuciones en los libros de historia. El trabajo de rastreo de la historia de las mujeres no es tarea fácil. Por ello el ayuntamiento de Getxo, ha abierto una convocatoria de subvención extraordinaria, de un máximo de 6.000 €, con el fin de sacar a la luz datos nuevos, o profundizar en los ya conocidos, sobre la historia de las mujeres de Getxo y sobre el papel que éstas han desempañado, de forma colectiva o individual, en la vida cultural, social, económica y política del municipio. El plazo para la presentación de solicitudes finaliza el 14 de noviembre de 2005.

## CONGRESO SOBRE VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES

El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y la Diputación Foral de Álava tienen previsto celebrar los días 19, 20 y 21 de octubre, en el Palacio de Congresos Europa de Vitoria-Gasteiz el Congreso sobre Violencia contra las Mujeres "Construyendo la igualdad". Este Congreso tiene como objetivo facilitar un espacio para la reflexión y elaboración de propuestas tendentes a la mejora de la prevención e intervención institucional y de agentes sociales sobre la violencia contra las mujeres, en el marco de las últimas iniciativas legislativas sobre el tema. Si bien esta violencia se expresa de múltiples maneras, todas ellas tienen en común la situación de desigualdad en que se encuentran las mujeres, tanto en sus relaciones sociales como personales. Dado el nivel de compromiso adquirido por el actual equipo de gobierno municipal en la construcción de una sociedad más justa en la que el derecho a una vida sin violencia sea patrimonio de todas y todos, una nutrida representación de trabajadoras y trabajadores del ayuntamiento de Getxo tendrá ocasión de asistir al evento.




## "ENTRE MUJERES"

La ONG de ayuda al desarrollo Perualde, en colaboración con el Ayuntamiento de Getxo, ha programado una serie de encuentros interculturales dirigidos a mujeres que residen en el municipio y que, teniendo orígenes y culturas diversas, comparten interés por los mismos temas. Bajo el título "¿Somos en realidad tan diferentes?" animan a la participación y al encuentro con otras mujeres para aprender unas de otras, indagar acerca de lo que las une y lo que las diferencia y, pasar en definitiva, un rato agradable.

El ciclo de encuentros se iniciará el próximo 13 de noviembre, a las 17.30 h, con la proyección de la película "Extranjeras" de Helena Taberna en la sede de la asociación y se repetirán cada domingo, hasta un número de cinco, para finalizar, en vísperas de la navidad, con una merienda intercultural. Anímate e inscríbete. La entrada es gratuita.

**Más información:** Villa de Plencia, 6 lonja k • 48930 Getxo • Tel. 94 480 21 28

# Euskal emakumeak Amerikan

*Larraitz Unzetaberrenetxea es profesora de educación física en un colegio del la zona y Gurutze Marcos estudia Electricidad. Se conocen desde hace un par de años. Ambas empezaron por casualidad en esto de la escalada, les picó el gusanillo, probaron y hoy es el día que están enganchadísimas. Consagran su tiempo libre a la montaña, aunque también se permiten alguna que otra fiesta, y tras regresar de su intensa aventura americana, ya están pensando en la siguiente salida.*

**Azkenean, Yosemite konkistatu zenuten?**
Ez. zehazki. Bagenekien gogorra zena. Betetzeko gai izango ginen ez genekien helburuak generamatzan, baina garbi geneukan saiatuko ginela, eta halaxe egin genuen. Gu ohituta geunden eskalada librea egitera –bestela esanda, esku eta oinekin, katearen lokarrien laguntza bakarrarekin- eta han dena zer eskalada artifiziala, oso motela eta prekarioa. Paretara hurbiltzeko soilik bi ordu eman zenezakeen, bizkar gainean 40 kiloko petatearekin, gainera. Gehiegi zen. Alabaina, han dena beste modu batera ikusten da. Heltzen zarenean han Kapitaina, Half Dome aurkituko dituzula uste duzu, beste ezer ez. Hara heldu eta dena dago inorentzat garrantzitsuak ez direla dirudien eskalatzeko moduko pareta erraldoiez beteta. Hango txikiena hemen izugarri handia litzateke.

**Zer pareta eskalatu duzue?**
Gauza errazagoak egiten aritu gara. Kapitaina eta Half Dome egitekoak ginen baina, horren ordez, Leaning Tower egin dugu, dorre laburragoa (500 edo 600 metro), eta Washington Column, Katedrala eta abar. Ez duzu sinistuko baina abuztuaren 20an berriro saiatu ginen Kapitainean sartzen, eta atzera egin behar izan genuen.

**Eta diruaren aldetik, oso garesti atera zaizue?**
Udalak (Gazte Zerbitzua eta Kultura eta Kirola Sailaren bitartez) emandako dirulaguntzarekin hegaldiak ordaindu genituen, baina behar genuen materiala geuk ordaindu behar izan dugu. Eskerrak hemengo mutil bat gurekin etorri eta materialaren parte bat ipini zuen, bestela ez zitzaigukeen helduko. Paretan lo egiteko hamaka berezi bat 600 euro ateratzen zaizu, atera kontuak.



**Azken orduko ezustekorik?**
Denak!! Bidaia hasi orduko, Bilbotik San Frantziskorako hegaldia hartua geneukan, baina irten baino egun batzuk lehenago ordenagailuan akats bat gertatu zela eta San Frantziskora barik hegaldia New Yorkera helduko zela abisatu ziguten. Han Drive away batekin kontaktatu genuen; bidaiatzeko autoa behar duen eta autoa urrutira eraman behar duen jendea harremanetan jartzen duten enpresa horietako bat da. 12 egun luzeko bidaia egin behar izan genuen New Yorketik Mexiko Berrira heltzeko. Eskerrak autoa handia zenez autoan lo egin ahal izan genuela! Diru asko aurreztu genuen horrela.

**Eta zer egin zenuten Mexiko Berrira heldu zinetenean?**
Mexiko Berrian autoa alokatu genuen San Frantziskoraino joateko; han bi egun egon ginen, autoa itzuli, bestearengatik jarritakoa berreskuratu eta sustorik ez izateko New Yorken fakturatu genituen petateak jasotzeko ezinbestekoa. Generaman materialak asko balio zuen eta ezin genuen lapurreta arriskurik hartu. Bidaia eta zerbait gehiago zapuztuko zitzaigun bestela.

San Frantziskotik autobusez joan ginen Yosemiteko parke nazionaleraino, eta han hilabete eta bost egun eman genuen. Ostatu hartzea oso garesti dagoenez, eskalatzaileen kanpalekuarekin konformatu behar izan genuen; oso kaskarra zen, egia esan; dutxarik gabe, denontzako harri bakarra... Gainera, bailarako arauek diotenez, han ezin duzu zazpi egun baino gehiago eman eta, jakina, denetariko trikimailuak asmatu ditugu rangerrengandik ezkutatzeko. Azkenean harrapatu eta kanpora bidali gintuzten, “gauzak jaso eta alde egiten ez baduzue, materiala atxikiko dizuegu”, esan ziguten.

**Esadazue, hain urruti joan behar da eskalatzera?**
Ez horixe! Hemen badauzkagu oso leku onak, pilo bat. Eguraldia da sarriago eskalatzea eragozten diguna. Orain, urrutirago joan barik, Ogoño eta Mugarrako denboraldia hasiko da. Kantabria. Nafarroan ere harkaitz zoragarriak daude. Neguan, eguraldiak laguntzen ez duenean, Leioako kiroldegian entrenatzen gara. Eguraldi ona egiten duenean haitzetan aritzeko aprobetxatzen dugu.

**Bidaiako onena...**
Paretetan igaro ditugun ilargi beteko gauak. Zoragarria da, amaitu duzu, lasai zaitezke, eta paisaia ikaragarria da... Agian ilunabar arrunta baino ez da, baina han guztiz desberdin bizi duzu. Dena magnifikatzen da. Janariak ere zapore hobea dauka...

Hombres Haciendo Frente al Sexismo

# También nosotros tenemos algo que decir

*En próximas fechas, dará comienzo el taller "Hombres haciendo frente al sexismo. También nosotros tenemos algo que decir" que el Área de Igualdad del Ayuntamiento de Getxo incluye, por primera vez, en su programa de actividades. Destinado a los hombres del municipio, quiere ser un espacio de formación y reflexión en el que se aborde la necesaria implicación de los hombres en la lucha por la igualdad.*

Las últimas décadas han sido testigo de grandes cambios en las relaciones que las mujeres mantenemos con nuestro entorno. Cambios que nos han reportado múltiples beneficios, tanto en el ámbito publico como privado. Nos hemos incorporado masivamente al mercado laboral, participamos activamente en movimientos políticos y sociales, vamos recuperando nuestra presencia en espacios que nos estaban vedados, llegando a un grado de autodeterminación jamás igualado. Sin embargo, cuestiones como la violencia contra las mujeres o el reparto desigual del trabajo doméstico y los cuidados nos indican que el sexismo aún sigue operando muy activamente en nuestra sociedad.

Mientras tanto, ¿Qué hacen los hombres? ¿Qué actitud han adoptado ante esta transformación social? Este cambio está generando modificaciones tan globales en las relaciones que los hombres no pueden permanecer neutrales, ya que al modificarse tan radicalmente el lugar asignado a las mujeres en la cultura, esto no puede sino provocar complementariamente un cuestionamiento del propio lugar del varón en el mundo, ante las mujeres, ante los otros varones y ante sí mismo.

Recientemente se han constituido grupos de hombres que se están cuestionando los roles tradicionales, su papel ante el sexismo y la necesidad de establecer relaciones más igualitarias. No se limitan a observar el proceso desde la barrera y han entendido que, además de necesario porque repara agravios históricos injustificables, el cambio de las mujeres está contribuyendo más que ningún otro factor a conseguir que los hombres tengan la oportunidad de liberarse de las servidumbres de los viejos modelos masculinos. No debemos olvidar que, aunque de manera más sutil, el sexismo también perjudica a los hombres.

El área de Igualdad del Ayuntamiento de Getxo ha anunciado la realización de un taller dirigido a los hombres del municipio que bajo el título "Hombres haciendo frente al sexismo. También nosotros tenemos algo que decir" quiere ser un espacio de formación y reflexión en el que se aborden temas como el modelo masculino tradicional y sus consecuencias tanto para las mujeres como para los hombres; el papel de los hombres dentro del y frente al sexismo; etc. Quiere, en definitiva, ser un espacio de encuentro e intercambio entre hombres que desean relaciones más igualitarias, tanto entre sí como con las mujeres.

El taller que tendrá una duración de 15 horas, repartidas en 6 sesiones, dará comienzo el 17 de octubre, y se desarrollará en el Aula de Cultura de Villamonte, Algorta, los lunes de 19.00 a 21.30 h.



## *Zuk uste duzu sexismoak gizonezkoei kalte egin diela, baita ere?*
## *¿Crees que el sexismo ha perjudicado también a los hombres?*



**Ane**

" Nik uste dut baietz. Ez da bakarrik emakumeen borroka bat. Mutilek inplikatu behar dute, beraiek ere erantzunkizuna badaukatelako. Nik ez dut uste mutilen edo nesken gauza bat izango denik. Emakumeoi zuzenagotik tokatzen zaigu, horregatik gehiago inplikatzen gara baina eurek ere, pertsonak diren heinean, bidegabekeria bat dagoela ikusiko dute eta zerbait egin behar izango dute.

" Yo creo que no. Ellos están super cómodos siendo machistas como lo han sido siempre. Los jóvenes y los niños vienen igual. Lo peor de todo es que yo creo que la culpa la tenemos nosotras. Tengo un niño de 5 años y una sobrina de 13. Mi hijo quería una plancha y mi sobrina me decía "iseko, si es un niño ¿cómo le vas a regalar una plancha?". Claro, ella está acostumbrada a que lo haga todo su madre y es lo que le parece normal.



**Beatriz**



**José Manuel**

" Claro que sí. No hay un trato igualitario. Siempre se va a favor de los hombres o de las mujeres. A nivel legal se favorece a las mujeres y a otro nivel las mujeres están más discriminadas.

" Yo creo que no se ha superado el sexismo. Hasta donde yo conozco, aunque se ha avanzado, las mujeres y los hombres no están en plano de igualdad. Incluso cuando los hombres colaboran en las tareas del hogar la que lleva el peso de la organización es la mujer. Por otra parte, continúa habiendo resistencias en torno a la idea del hombre como cuidador. Todavía se puede oír frases como "Fíjate ese, con los niños paseando, pues ¿qué estará haciendo la mujer...?". Y, claro, aunque ellos quieran...



**Marina**



**Juan Ignacio**

" Yo creo que hoy por hoy la igualdad es un hecho, por lo menos en mi caso. El sexismo va con las personas no depende de que seas hombre o mujer. Pero, claro, siempre hay ovejas negras.

" Depende qué tipo de hombres, más o menos vulnerables, sí les ha perjudicado. A mi no me ha perjudicado en nada. Ahora hay más igualdad y el sexismo es cosa del pasado. No obstante, es posible que en ámbitos como el de la seguridad ciudadana sí exista un trato diferenciado. Con el clima actual de tolerancia cero hacia la violencia doméstica, ser hombre te sitúa en el punto de mira.



**Iñigo**

# Engaiatutako Bost Emakume

*Ane y Lur son dos de las cinco mujeres jóvenes, comprometidas con el movimiento feminista y con el proyecto de construcción de una Euskal Herria paritaria, que componen el núcleo de Bilgune Feminista en Getxo. Surgida hace cuatro años ante la desaparición de otros grupos feministas, es un organismo feminista a nivel nacional que agrupa a mujeres de las siete provincias de Euskal Herria que trabajan en red.*



## "bilgune feminista"

Bilgune Feminista Euskal Herriko zazpi probintzietako emakumeak biltzen dituen sarea da; bi mailatan funtzionatzen du: batetik, arlo desberdinak daude (Sozioekonomia, hezkuntza, hedabideak eta kultura), eta bestetik, herri mailan lan egiten duten emakumeak, betiere bakoitzak noraino inplikatu nahi duen arabera. "Getxoko taldean bost emakume gaude, modu batera zein bestera laguntzen duten pertsonak gehiago izan arren. Batzuk militanteak dira, eta herrian egiten dute lan, beste batzuk, berriz, sarean daude eta ahal duten eremuetatik Bilguneren helburu eta jarduerak zabaltzen laguntzen dute."

**Helburuak**

Bilguneren azkeneko helburua berdintasunezko Euskal Herria eraikitzea da eta, horretarako, Getxo mailan egiten dituzten jarduketak helburu hori lortzera bideratzen dira. "Aurten, esaterako, hedabide nazionalengan (Gara, Berria, El Correo, eta abar) zein tokian tokikoengan pentsatuta, emakumeak ez baztertzeko informazioko estilo liburu bat atera dugu, eta hezkuntza mailan, euskal curriculumaren diseinuan ere parte hartu dugu, gure ikuspegia eskainiz, eta ikastegietan sexu bereizkeriarik gabeko hezkuntzarako ildoak zabalduz. Azken finean, esparru desberdinetan eragiten saiatzen gara, amaierako helburua lortzera begira."

**Zailtasunak**

Baliabide ekonomiko eta materialik ez izatea da eguneroko bidean gainditu behar duten oztopo nagusietako bat. "Bat ere baliabiderik ez daukagu. Lokalik ez daukagunez, kultur aretoa, kalea... erabiltzen ditugu. Laguntzaren bat izango bagenu, desberdina litzateke", baietsi dute. "Nazio mailan hedatutako erakundea gara, eta gai askotan adituak diren emakumeak ditugu gure artean. Gure ustez, emakumeoi ez zaigu merezi dugun garrantzirik ematen." Bien bitartean, auto-kudeaketari heldu diote. Joan diren Portu Zaharreko jaietan, erasoen kontrako eguna sartu zuten egitarauan; bazkaria, kalejira, bertso saioa... antolatu zituzten. "Oso esperientzia interesgarria izan da. Dirua biltzeko ez eze, emakumeen aldarriak jaietan egon eta ager daitezen ere balio izan digu."

**Etorkizunerako egitasmoak**

Hemendik urte amaierara arte hainbat mobilizazio eta hitzaldi egitea pentsatuta daukate, azaroaren 25a tarteko, eta gabonetan, herriko beste talde batzuekin batera (Gazte Asanblada eta Herriko Konpartsa), kontsumoaren eta sexu bereizkeriaren kontrako jaia antolatuko dute, non, bigarren urtez jarraian, besteak beste, informazioa eman, trukerako aukera eskaini eta jendearen sormena susperttzen saiatuko diren.

**Mezu bat**

Ohartarazten digutenez, sexismoaren ezaugarriak aldatu egin dira. "Lehenago askoz ere nabarmenagoak ziren, eta egun begiak pixka bat zabaldu behar dituzu bereizkeriak ikusteko. Horregatik, emakumeak beren eskubideen alde borrokatzera amaitu nahi ditugu."

euskal herriko bilgune feminista

**Dokumentazio eta Ikerkuntza Zentroa - Emagin**
www.artxibofeminista.org
**Kontaktua:** ehbf@euskalherria.org

# Octubre-Diciembre 2005
## Urria-Abendua

| | |
|---|---|
| **ALBOA** | Asociación de Viudas de Uribe Kosta – *Uribe Kostako Emakume Alargunen Elkartea*<br>Apdo de Correos 451 – 48930 Getxo • Tel. 686 72 51 25 |
| Clases de yoga, autoestima, bailes de salón, musculación y aeróbic, senderismo, etc. Servicio gratuito de asesoría psicológica y jurídica. | Yoga, autoestimu, saloiko dantzak, aeróbic eta muskulazioa eta senderismoa. Laguntza psikologikoa eta juridikoa dohainik. |
| **ANDRAK** | Asociación Socio-cultural de Mujeres de Leioa –<br>*Leioako Emakumeen Gizarte eta Kultura Elkartea*<br>C/ Sabino Arana, 78, bajo. Apdo de correos 74 – 48940 Leioa • Tel. 94 464 71 71 |
| Cursos de formación ocupacional en rama sanitaria y administrativa, talleres variados (literatura, actualidad, memoria, corte y confección, grafología, etc). Charlas informativas, salidas culturales. Servicio de asesoría jurídica y biblioteca. | Lanerako prestakuntzako ikastaroak, administrazio eta osasun arloan. Tailerrak (literatura, memoriaren hobekuntza, jantzigintza, grafología, etab). Solasaldiak, kultur txangoak. Lege Aholkularitza Zerbitzua eta liburutegia. |
| **BILGUNE FEMINISTA** | *Elkarte Feminista*<br>Tel. 627 39 35 49 / 685 71 31 87 |
| Organizan actividades encaminadas a construir una Euskal Herria en igualdad. | Parekidetasunean oinarritutako Euskal Herri bat sortzeko ekintzak antolatzen dituzte. |
| **ESKUZ-ESKU** | Asociación de Mujeres para la Formación y el Desarrollo –<br>*Prestakuntza eta Garapenerako Emakumeen Elkartea*<br>C/ Puerto Orduña, 16 bajo – 48990 Getxo • Tel. 94 430 08 35 |
| Cursos de formación y talleres: informática, diseño gráfico, acceso a la universidad, coral, grafología, autoestima y psicología, etc. Servicio de asesoría psicológico-jurídica gratuito. | Prestakuntzako ikastaroak eta tailerrak: informatika, diseinu grafikoa, unibertsitatera sarbidea, korala, grafologia, autoestimu eta psikologia, etabar. Aholkularitza juridikoa eta asistentzia psikologikoa dohain. |
| **ETXEKIN** | Asociación para la Promoción de la Mujer – *Emakumeen Sustapenerako Elkartea*<br>Algortako Etorbidea, 104 – 48990 Getxo • Tel. 94 491 16 70 / 605 71 41 49 |
| Actividades dirigidas a la promoción de la mujer: cursos de conocimiento personal, relajación y atención a personas mayores. | Emakumearen sustapenerako ekitaldiak: norbera ezagutza, erlaxazioa eta adineko pertsonentzako arretari buruzko ikastaroak. |
| **GIZATIAR** | Asociación Socio-cultural de Mujeres de Romo y Las Arenas –<br>*Erromo eta Areetako Emakumeen Gizarte eta Kultur Elkartea*<br>Parque Gobelaurre, s/n – 48930 Getxo • Tel. 94 463 50 12 • gizatiar@telefonica.net |
| Conferencias, tertulias, debates, información social, fiestas de cumpleaños, salidas culturales, etc. Escuela de voluntariado social. | Eztabaidak, tertuliak, gizarte informazioa, baita urtebetze jaiak ere egiten dituztelarik. Gure boluntarioen eskolan parte hartzeko espazioak. |
| **LAGUN ARTEAN** | Asociación Cultural de Mujeres – *Emakumeen Kultur Elkartea*<br>C/ Villamonte A, 8 – 48990 Getxo • Tel. 94 460 91 21 / 635 40 24 59 |
| Charlas, conferencias, cine-forum, excursiones, etc., todos los miércoles. | Asteazkenero eztabaidak, tertuliak, zineforuma, txango kulturalak, etab. |
| **RODA** | Asociación Cultural – *Kultur Elkartea*<br>Areetako Etorbidea, 10 bajo-dcha – 48930 Getxo • Tel. 94 463 18 96 |
| Clases de historia, pintura, club de senderismo, tertulias de actualidad, ciclos de arte y música, conferencias. | Historia, literatura, margolaritza, solasaldiak, musika eta arteari buruzko ikastaroak eta hitzaldiak. |

Si quieres saber más, dirígete a los locales de las asociaciones donde te informarán de estas y otras actividades.

*i*

*Gehiago jakin nahi baduzu, hona hemen jarduera hauen eta beste batzuen berri zehatzagorik emango dizuten lokalen helbideak.*

**Edita:** Área de Igualdad del Ayuntamiento de Getxo
Martikoena, 16 — 48992 GETXO
**Tno:** 94 466 01 30 **E-mail:** gizartez@getxo.net www.getxo.net
**Redacción y Diseño:** Infopolis 2000, s.l.

Se autoriza la reproducción de estos textos citando la fuente.

Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO